

BURUAZURRA.¹

ICHAS ALDEKO IRAKURGEYA.

I.

Anchiñetako denporan gertaua da.

Urrillaren azkenengo aritzaldian X-ko portura etozan bertako chalupa guztiak, bela zurišak aizez beterik belcharga² ederrak zirudiela.

Eguzkia-ren amajerako argi errañuak urretzen zituan ichas gizonen errama bustiak.

Iñoiz ikusi eztabenak eztaki zeñ begiragarria zan chalupen etorrera au.

—Arrantza ugarisa—esan eban erritik betaurre luze bategaz begira eguan gizon batek, piskabat urreratu ziranian chalupak.

—E?... santu guztien jaiša ondo igaroteko eria—erantzun eban beste batek.

—¿Benetan, On Pedro?—ziñuan inguruko emakume aldra batek—¡Ene! Guazen gizoni apariša prest jartera. Eta banatu zan erri guztian zabaltzen barri ona, Jaungoikuari—eskerrak emonagaz.

Gau atan X-en sukaldiak atsegiñez beterik egozan. ¿Zelan ez? Aspaldiñan ichasua añ urriša, añ ukatua euki eben bertako arrantzaliak eze, eziñ izan eutsen kendu ogi apur bat euren semechuentzat, eta egun baten ekarri eben ezagutu ez legezko irabaziša.

(1) La calavera.

(2) Cisnes.

II.

Bizitza doakabetsua eukiagaitik beti izan dira gure mariñelak alegere eta bizkorrak. Ondo erakutsi eben X-en, Santu guztien egunian euren irrintzi ta saltuakaz.

Oraindik osta ziran igaro chistu-danboliñ soñuak išildu ziranetik lau ordu, oraindik uste zan zirala entzuten gaztiak kantau zituen zortzikuen oiarzunak¹ deitu ebenian ichasorako. X-ko mariñelak, nekiaren ezaguerarik emon baga, jagi ziran biziro, eta laster, erraunak azkar erabilliagaz asi ziran ichasoruntz.

Errekan ziar, barratik kanpora urten baño len, chalupa baten barruan euki eben berba-aldi au:

—Triste zagoz, zarra, ¿jai urrena alda?

—Bai, jai urrena da; baño ez nau orrek tristetzen; ezta biar egitiak bere: uste dot dakizuela alperra ez nazana. Bakarrik samintzen dau nire biotza ez gordetiak geure asabeen oitura onak. ¿Guztiok ez genduke lagundu biar galdu ez daitian izerchu bere euren ekandu ederretatik?

—Ondo esana, ¿baña zerk berba eragiten deutsu orretara?

—¿Eztakizube gaur zer egun dan? Gaur animen eguna da, eta gaurko egunez etzan ichasoraterik lenago.

Geisenak ezeben barbarik eraso; batek erdi bildurrez esan eban:

—Atzoko batzarrian iša patroi danak euken ez ichasora juateko iritzisa; baña Pranziskok errazoya... ren ichuriagaz berba egin eban esatian igaroko egun askuan izer ekarri ez ta oraiñ, zerbait emon gura dabenian ichasuak, ez juatia ez deitzola. Orregaitik beragaz erakidatu ziran beste patroi guztiak.

—¿Ekandu onak kentzia gauza ona da? Eta egin leike iñok errazoya... gaz berba gauza charraren alde? Pranzisko luzaruan erdal-errietan egonda ta areetatik gurako dau gauza barri au sartu, beste asko legez; baña euskaldunak bagara, euskaldun zarren gauzai jarraitu biar deutsagu.

—Egia esateko ¿zenbat guretariko ichaso onek iruntzi dituan... ta...!

(1) Ecos.

III.

Illunabarra zan. Zeru odei baltzez jantziak esan zeikian mundua lutuz estali gura ebalá; ichaso sekula ez legez bariak Kanpo-Santu baten ichuria eukan; ichas ondoko mendišetan arbolak, orri baga ta illak, azurrutzaren antzekuak irizten ziran eta otiaren lora orišak illaren kolia emoten eutsen gauza guztiai.

X ko chalupak etozan portura motzik, aize apur bat baga, indarraren indarragaz ekarriak, eta erritik begiraturik laba-chori batzuk iruditzen ziran.

Kaira eldu ziranian ezagunak itauntzen eben:

—¿Zenbat?... ¿zenbat?...

—Eztogu iñok arrain bat ikusi, zan eranzuera.

—Bai, dirautsa onetan agurachu batek, Pranzisko-renak artu dau zerbait.

—¿Zer?

—¡Gizonen baten buru-azurra!

Eta egiša zan.

.

Gertaera onetatik gaurko egunera urte asko juandira;baña X-ko mariñelik ezta geisago ichasora jua Zemendiša-ren 2-an.

Gañera ez deutse jaramonik egiten sekula erdal-erritarren esanei.

¡Ai, au egingo balebe euskaldun guztiak!

DOMINGO AGIRRE-KUA.